

Mondragon Unibertsitateako 181 tituludunek jasoko dituzte bihar euren diplomak

2015/04/23

Mondragon Unibertsitatearen Goi Eskola Politeknikoak diplomak banatuko dizkie 2013-14 promozioan ingeniartzako espezialitateetan titulua eskuratu duten 181 ikasleri, bihar 18:00etan Arrasateko Amaia Antzokian izango den ekitaldian. Diplomak emateko ekitaldi hori, zehazki, hirukoitza izango da: alde batetik, doktorego-programako 15 lagunek jasoko dute diploma; beste alde batetik, goi-mailako ingeniartzako 12 tituludunek eta, azkenik, Mondragon Unibertsitatean ingeniartzako masterren bat egin duten 152 ikasleek. Ekitaldian aipamen berezia jasoko dute Ekiten, Kutxa, Get Up Orona, Altuning... programetan sariak jaso dituzten ikasleek. Ekitaldian zehar, Ingeteam Power Technologyko gerente ondokoak hitzaldia eskainiko du, "Enpresaren gakoak" gaiari buruz.

Titulu horiek eskuratzeko, ikasle guztiek Karrera Amaierako Proiektua burutu behar izan dute enpresaren batekin lankidetzan. Enpresa horietako asko atzerrikoak dira, hala nola Erresuma Batukoak, Suediakoak, Alemaniakoak, Finlandiakoak, Mexikokoak eta Txekiar Errepublikakoak, besteak beste.

Diploma-banaketa bihar, apirilaren 24an, egingo da, eta Goi Eskola Politeknikoko zuzendari Carlos Garciak emango dio hasiera ekitaldi akademikoari. Amaierako hitzaldia, berriz, Mondragon Unibertsitateko errektore Vicente Atxaren esku egongo da. Ekitaldiari bukaera emateko, musika-emanaldi laburra eskainiko da.

